Sendaberri

Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

Organiza/ Antolatzailea:

RED DE TEATROS DE NAVARRA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

Subvenciona/ Diruz laguntzen du:

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Fotografía/Argazkia: Lorenzo Scutti
Espectáculo/Ikuskizuna: El Porqué De Los Perdidos / Galduen Zergatia. (Sendaberri 2026)

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

Es un programa propio de la Red de Teatros de Navarra – Nafarroako Antzoki Sarea (en adelante RTN-NAS) que se desarrolla en colaboración con el Departamento de Cultura, Deporte y Turismo del Gobierno de Navarra.

FILOSOFÍA SENDABERRI

SENDABERRI es un juego de palabras que mezclando castellano y euskera significa nuevas sendas, nuevos caminos.

Ese es precisamente el objetivo principal del ciclo: **enriquecer y complementar la programación habitual** de nuestros espacios escénicos asociados, a través de espectáculos de calidad, cuya programación al no estar destinada a un público mayoritario, a veces resulta más complicada.

Propuestas escénicas de Teatro, Danza y Circo con algunas de estas características:

Temáticas que empleen lenguajes innovadores, integren distintas disciplinas, se distancien de lo comercial, sean inclusivas en su elenco o en su mensaje, que en sus temáticas generen conciencia crítica y conecten con la realidad de la sociedad, apostando por cuestiones sociales, de perspectiva de género, o de apoyo a colectivos desfavorecidos; en definitiva, propuestas que nos emocionen.

Queremos, por tanto, acompañar a nuestras audiencias, espacios escénicos y compañías, en la apertura de nuevas sendas escénicas; nuevas formas de expresar y de sentir.

EN CORTO

Para el diseño de la programación final se tendrán en cuenta aquellos espectáculos presentados a través de la presente convocatoria, que serán complementados por espectáculos que la propia RTN-NAS proponga a través de las comisiones y mecanismos diseñados internamente a tal efecto.

La programación se dividirá en dos bloques. El primero desde la segunda quincena de enero hasta finales de mayo y el segundo desde septiembre hasta mediados de noviembre. Buscamos espectáculos de medio y pequeño formato que se adapten a las características de los espacios asociados a la RTN-NAS, tanto en lo relativo al espacio escénico como al presupuesto disponible.

Los espacios escénicos programan alguna actividad paralela o de mediación acompañando a la propia exhibición, ya sea en días previos (talleres, acciones con colectivos de la zona...) o en el propio día de la función (encuentro con el público anterior o posterior).

Es por eso que buscamos la colaboración con compañías que tengan interés en este tipo de actividades.

La programación definitiva se diseñará teniendo en cuenta una serie de criterios y metodologías internas, que garanticen una destacada presencia de propuestas navarras, o con presencia navarra en sus equipos, siempre que estas respondan a los objetivos programáticos. A su vez, se mantendrá siempre un espacio para alguna compañía no navarra. Todo ello estará supeditado a las elecciones finales de los espacios escénicos.

Por tanto, la RTN-NAS en colaboración con el Departamento de Cultura, Deporte y Turismo del Gobierno de Navarra abre el plazo para presentar propuestas al ciclo *SENDABERRI, Nuevos Paisajes Escénicos – Paisaia Eszeniko Berriak* 2027. **Dicho plazo estará abierto hasta el 23 de abril de 2026** *(incluido)*.

01. OBJETO

El objeto de esta convocatoria es la recepción de propuestas escénicas con el fin de que puedan ser tenidas en cuenta en el diseño de la programación del ciclo *SENDABERRI, Nuevos Paisajes Escénicos, Paisaia Eszeniko Berriak 2027*.

02. FILOSOFÍA SENDABERRI

Los objetivos programáticos del ciclo están definidos en la introducción del presente documento y pueden también consultarse en la URL: https://sendaberri.com/sendaberri/ o en los vídeos que definen el ciclo, tanto en **castellano** como en **euskera**.

03. ÁMBITO DE APLICACIÓN

Podrán presentar sus propuestas las personas físicas profesionales y empresas de artes escénicas que reúnan los requisitos establecidos en el presente documento. Se deben leer detenidamente las presentes bases antes de enviar su propuesta. Las propuestas recibidas que no cumplan con los requisitos definidos serán automáticamente eliminadas.

04. SOBRE LAS PROPUESTAS ESCÉNICAS

a) Compañías navarras: se podrán presentar propuestas de espectáculos de Teatro, Danza y Circo estrenados a partir de septiembre de 2024. Se aceptarán espectáculos a estrenar próximamente, siempre que puedan aportar un vídeo íntegro de la obra (aunque este sea del proceso de ensayos).

b) Compañías no navarras: propuestas estrenadas a partir del 1 de enero de 2025, siempre y cuando hayan superado algún otro proceso de selección por parte de comisiones artísticas análogas, o vengan avaladas por algún distintivo o sello de calidad.

Especialmente se tendrán en cuenta:

⟶ Aquellos espectáculos que formen parte de los cuadernos de recomendación de la Red Española de Teatros, Auditorios, Circuitos y Festivales de Titularidad Pública, o de alguno de sus ciclos (Danza a Escena y Circo a Escena).

⟶ Aquellos espectáculos que hayan formado parte de la programación de alguna de las Ferias de Artes Escénicas nacionales de reconocido prestigio en su última edición celebrada hasta la fecha (Dferia, Fetén, Feria Internacional de Teatro y Danza de Huesca, Madferia, etc.). Las compañías deberán demostrar este hecho de la manera que consideren (links a webs, cartas certificadas, etc.).

⟶ Aquellos espectáculos que hayan sido vistos y recomendados por las personas expertas socias o colaboradoras de la RTN-NAS.

c) Sendaberri impulsa la programación de **actividades paralelas a la función que acompañen la propia exhibición**; actividades de mediación o de sensibilización de públicos. Es por eso que las compañías deberán presentar algún tipo de actividad o propuesta en esta línea, que podrá ir desde el encuentro con el público el mismo día de la función, hasta acciones más desarrolladas que conecten directamente con las audiencias de la respectiva población.

Cuando una propuesta sea seleccionada para formar parte de la programación, la compañía y el espacio escénico trabajarán en el desarrollo y adaptación de las actividades seleccionadas a la realidad de cada localidad, partiendo de la propuesta inicial de la compañía. Por tanto, las propuestas recibidas deberán presentar, en el proyecto mencionado en el punto 12, algún tipo de actividad en esta línea, detallando el coste de la misma en su caso. Si la actividad se ciñera a un encuentro con el público el día de la función, deberán exponerse los objetivos de este encuentro en relación a las temáticas, procesos de creación u otras cuestiones que se pretenden compartir con la audiencia. En caso de ofrecerse varias actividades, será el espacio escénico quien decida cuál de ellas le resulta de mayor interés para su localidad.

d) Las propuestas presentadas deberán especificar el importe total en bruto del **caché del espectáculo (IVA INCLUIDO)**, incluyendo la totalidad de los gastos (caché, ficha técnica, transporte, dietas, etc.). Podrán presentarse propuestas de **cachés variables en función del número de contrataciones**, cuestión que deberá detallarse en la ficha de solicitud de participación mencionada en el punto 12 de las presentes bases. Así mismo se deberá detallar en la hoja de inscripción el coste de las actividades paralelas propuestas: caché para la función únicamente, y coste de las actividades paralelas, si procede.

e) Únicamente podrán presentarse **propuestas de interior** que se llevarán a cabo en alguno de los espacios de titularidad pública socios de la RTN-NAS, pudiendo celebrarse sobre el escenario o en algún espacio no convencional que esté situado en el mismo espacio escénico, solo para el caso de propuestas diseñadas con ese fin.

f) Cada compañía podrá presentar **una única propuesta.**

g) La RTN-NAS eliminará automáticamente aquellas propuestas enviadas que no cumplan con los requisitos exigidos o cuya información haya sido modificada con el fin de ajustarse a los plazos definidos.

h) Buscamos programar espectáculos de Teatro, Danza o Circo, así como propuestas multidisciplinares que engloben diversos géneros. **No buscamos propuestas puramente musicales o conciertos.** Aquellas propuestas que generen dudas, serán estudiadas por el equipo gestor del ciclo en colaboración con la Comisión Artística, quienes decidirán su inclusión o no en el proceso de selección.

i) La RTN-NAS, a través de sus metodologías y comisiones internas, tendrá la potestad de proponer espectáculos que respondan a la citada filosofía **independientemente de la fecha de estreno.** Estas propuestas se unirán a las propuestas recibidas, con el fin de diseñar la programación que mejor responda a los criterios programáticos del ciclo, y poniendo el foco en las propias compañías, los espacios escénicos asociados y las audiencias.

05. REQUISITOS DE LAS COMPAÑÍAS

Con el fin de reducir la carga burocrática y facilitar la inscripción, la documentación citada en este punto sólo se solicitará a aquellas compañías programadas.

A la presente convocatoria se podrán presentar espectáculos de Teatro, Danza y Circo de compañías, productoras y distribuidoras profesionales de Artes Escénicas. En caso de ser seleccionadas para formar parte de la programación, la condición de profesional se habrá de justificar de la siguiente manera:

a) Dependiendo de si la titular es persona física o una sociedad, uno de los siguientes documentos:

a.1. En el caso de personas físicas: documento que acredite ejercer la actividad profesional (registro en el IAE).

a.2. En el supuesto de sociedades civiles con personalidad jurídica que no adopten formas jurídicas de sociedades mercantiles: copia del contrato de la sociedad y del código de identificación fiscal.

a.3. En caso de sociedades mercantiles: copia de la escritura de constitución (o de modificación, en su caso) de los Estatutos de la inscripción en el Registro Mercantil y del código de identificación fiscal.

b) Certificados de estar al corriente de sus obligaciones tributarias (Hacienda) y con la Tesorería General de la Seguridad Social.

c) Será condición indispensable que todas las personas que vayan a participar en un espectáculo programado, sean profesionales contratados o contratadas ya sea por cuenta ajena, o en régimen de autónomos/as (únicamente en los casos en que estas personas voluntariamente ofrezcan o soliciten esta opción). **No podrán programarse, por tanto, espectáculos que integren artistas en condición de amateur,** aunque sólo sea por una parte del elenco total (salvo en aquellos casos en que la participación de estas personas sea fruto de una actividad de mediación y esté bien justificada). El equipo gestor podrá solicitar los documentos que avalen la efectiva contratación del personal artístico.

06. SELECCIÓN DE LOS ESPECTÁCULOS PROPUESTOS A PROGRAMACIÓN

La RTN-NAS, en colaboración con el Departamento de Cultura, Deporte y Turismo del Gobierno de Navarra, será la encargada de confeccionar un catálogo con una selección muy reducida de espectáculos programables, atendiendo a los objetivos programáticos del ciclo y Filosofía Sendaberri. Para ello contará con la colaboración de una Comisión Artística formada por personas expertas en la materia, que tendrán en cuenta las propuestas recibidas a través de la presente convocatoria, así como otras propuestas que conozcan y que consideren muy acertadas en relación a los objetivos Sendaberri.

No existirá un baremo matemáticamente objetivable siendo la RTN-NAS soberana en su elección, que atenderá a los objetivos del programa y que tendrá en cuenta la realidad de los espacios escénicos socios de la propia entidad. Para ello podrán tener en cuenta cuestiones tales como el riesgo de la propuesta desde el punto de vista creativo, temática, tratamiento de la idea, grado de emotividad de las propuestas y poder de seducción de las mismas, aspectos innovadores (en sus procesos, lenguajes o técnica), calidad artística, trayectoria de la compañía, etc.

Otros aspectos que serán tenidos en cuenta en el proceso de selección:

⟶ Calidad y claridad del breve proyecto presentado (ver punto 12) y grado de acercamiento del mismo a las líneas programáticas definidas.

⟶ Planteamiendo y coherencia de las actividades paralelas o de sensibilización de públicos presentadas y su acercamiento a los objetivos del ciclo.

⟶ Viabilidad técnica: se valorará positivamente que los espectáculos puedan ser representados en los diferentes espacios de la RTN-NAS. En este sentido, en el apartado "Quiénes Somos – Ayuntamientos asociados" de la web de la entidad, se puede consultar el número de espacios escénicos que la forman y sus aforos, lo que puede dar una idea del tipo de espacios que forman parte de la RTN-NAS. En el apartado "Escenarios" también hay disponible información pública sobre el rider técnico y características de cada espacio.

⟶ Espectáculos en euskera: la entidad tratará de incluir entre los títulos propuestos, una relación de espectáculos en euskera que respondan a la Filosofía Sendaberri.

La selección de espectáculos se publicará en la sección "Actualidad" de la web oficial de la RTN-NAS. La presencia en dicho catálogo no garantizará contratación, ya que la última decisión en la selección de la propuesta corresponderá al espacio escénico. *(ver punto 7)*

07. DISEÑO DE LA PROGRAMACIÓN SENDABERRI

La RTN-NAS será la responsable de promover una programación de propuestas de pequeño y medio formato, equitativa, que responda a los objetivos del programa. Para ello la entidad diseñará los mecanismos necesarios con el objetivo de que la programación final responda a estas necesidades, cuestión que gestionará de manera interna. En este sentido, la entidad tiene autonomía para tomar las decisiones que considere necesarias, tales como la posibilidad de limitar el número de veces que un mismo espectáculo pueda programarse, así como el empleo de mecanismos que prioricen la programación de compañías navarras.

Por tanto, la programación final estará formada por aquellos títulos que, tras haber sido incluidos en la selección previa, hayan sido seleccionados en última instancia por los espacios escénicos, siguiendo una serie de metodologías y criterios internos, cuyos objetivos son:

» Diseñar una programación coherente como ciclo y como red, en el territorio.

» Buscar un equilibrio entre disciplinas.

» Fomentar la diversificación y descentralización de la oferta.

» Impulsar el trabajo en Red.

» Garantizar la presencia de compañías navarras.

» Impulsar la programación actividades paralelas o de sensibilización de públicos.

La RTN-NAS, a través del equipo gestor del ciclo y tras analizar las selecciones de los espacios escénicos, contactará únicamente con las compañías susceptibles de ser programadas informándoles de todas las cuestiones relacionadas con la gestión del ciclo (plazas propuestas, búsqueda de fechas, contratos, etc.).

Cabe recordar que fuera de este ciclo los espacios de la red tienen total autonomía para programar lo que deseen, por lo que cualquier compañía, independientemente de su procedencia, puede ser contratada en espacios de la red por los cauces habituales.

08. DIFUSIÓN

Todas las cuestiones relacionadas con la difusión responderán a las demandas del convenio que la RTN-NAS firme con el Departamento de Cultura, Deporte y Turismo del Gobierno de Navarra, así como a las exigencias encontradas a través de posibles nuevas vías de financiación. En cualquier caso, estas se detallarán en los correspondientes contratos que se formalicen entre las compañías, espacios escénicos y la propia RTN-NAS.

09. FINANCIACIÓN

El programa se financia a través de las **aportaciones de la Dirección General de Cultura - Institución Príncipe de Viana,** de los espacios escénicos municipales de la RTN-NAS que participen en el mismo y de otras aportaciones que, en caso de estimarlo necesario, la propia RTN-NAS pueda realizar a través de sus recursos propios, otros posibles acuerdos alcanzados, o mediante la participación en otras convocatorias de ayudas.

9.1- Sobre los porcentajes de financiación para espacios escénicos:

La RTN-NAS financiará un % del caché del espectáculo que podrá ser variable en función del grado de acercamiento de las propuestas a la Filosofía Sendaberri. La Comisión Artística será la encargada de definir el porcentaje de financiación que se asignará a cada espectáculo.

Independientemente del porcentaje de financiación final propuesto a cada espectáculo programado, el importe máximo por espectáculo financiado por parte de la RTN-NAS será el resultado de dividir el presupuesto destinado a programación en el convenio con la Dirección General de Cultura (una cantidad estimada de 105.000 euros IVA incluido), entre el número de espacios escénicos participantes. Se estima que esta cantidad sea cercana a los 3.000 euros IVA incluido, a la espera de conocer estos datos.

En caso de que los % aplicados superen este importe, será el espacio escénico quien asuma la diferencia hasta el importe total del caché de la compañía. De igual forma, este porcentaje podrá ser menor cuando el remanente disponible para la última función asignada no sea suficiente y siempre que el espacio escénico esté dispuesto a asumir la diferencia.

9.2- Los espacios escénicos municipales que participen en el ciclo asumirán los siguientes gastos:

a) El % del caché de las compañías contratadas, IVA incluido, que les corresponda.

b) Necesidades técnicas de los espectáculos: personal técnico (1 persona), equipos de iluminación y de sonido, etc. En este sentido, cada espacio escénico estará obligado a aportar únicamente los mínimos requisitos técnicos que les son exigidos para ser miembros de la RTN-NAS y que están disponibles en el ANEXO I de los estatutos de la entidad. Las necesidades por encima de la ficha mínima correrán por cuenta de la compañía, salvo que el espacio lo aporte de manera voluntaria. En las funciones de Danza que así lo requieran, el espacio escénico deberá aportar también el linóleo en caso de que la compañía no disponga del mismo.

c) Difusión local de las actuaciones a través de los canales habituales (cartelería, redes sociales ...) siguiendo las líneas marcadas por el programa y detalladas en el futuro contrato.

d) Gastos derivados del uso del espacio escénico y espacios complementarios, tales como escenario, camerinos, sala, vestíbulo y accesos, así como aquellos necesarios para garantizar la seguridad del público y de la compañía en el espacio escénico y espacios complementarios.

e) Venta de localidades y abono de derechos de autor a las entidades gestoras de los mismos.

f) Cualesquiera otros gastos que siendo necesarios para la actuación no sean de cuenta de las compañías, ni de la RTN-NAS.

g) Coste de las posibles actividades paralelas opcionales en los casos en que estas puedan separarse del hecho escénico global. La RTN-NAS se reserva la posibilidad de asumir un % del coste de estas actividades en los casos que todas las partes implicadas lo consideren oportuno.

10. MODELO DE CONTRATO y FACTURACIÓN

La RTN-NAS será la responsable de redactar un único contrato que deberá ser firmado por las 3 partes (RTN-NAS, entidad local participante y compañía artística).

En dicho contrato vendrán especificadas las condiciones de la contratación, obligaciones y derechos de cada parte. Las compañías contratadas deberán emitir dos facturas por cada función programada (una a la RTN-NAS y otra a la entidad local correspondiente), por el importe que se definirá en los contratos.

11. PLAZOS DE PRESENTACIÓN DE DOCUMENTOS

El plazo de presentación de propuestas para las compañías estará abierto hasta el **23 de abril de 2026** *(incluido)*.

El alto volumen de propuestas recibidas nos impide contactar con cada compañía de manera individual, pero sí recibirán un correo que confirme la recepción.

12. SOLICITUD Y DOCUMENTACIÓN

a) Durante el plazo de presentación se habilita el correo electrónico **sendaberri@gmail.com** para que las compañías puedan enviar sus propuestas, aportando la siguiente documentación:

⟶ **La ficha de "solicitud de participación"** que estará disponible en la web de la RTN-NAS al final del comunicado oficial de publicación de bases. Será obligatoria la aportación del **vídeo completo de la propuesta** y se deberá incluir **a través de link (URL), en la propia ficha** de solicitud de participación. En ningún caso se aceptarán enlaces de descarga de material como wetransfer o similares.

⟶ Proyecto: se debe presentar un **breve proyecto** en el que se argumente por qué merece la propuesta escénica formar parte de *Sendaberri, Nuevos Paisajes Escénicos - Paisaia Eszeniko Berriak 2027*. Si lo estiman oportuno, dicho proyecto podrá incluir otro tipo de material promocional, pero siempre integrándolo en el propio documento, y teniendo en cuenta que el peso del mismo no podrá superar los 10MB. El modelo de redacción es libre y su extensión debe ser como máximo de 5 folios (10 folios en caso de enviar el proyecto en castellano y euskera).

⟶ Las compañías de fuera de Navarra deberán justificar que cumplen el punto 4. b) de las presentes bases (documentos oficiales que así lo demuestren, o enlaces web a páginas oficiales que permitan una comprobación).

b) Las compañías podrán enviar si lo desean el dossier genérico del espectáculo en un único documento PDF como documentación extra, pero en ningún caso este documento sustituirá el breve proyecto solicitado.

c) Las solicitudes que no incluyan de forma correcta todos los documentos exigidos en la convocatoria no serán tenidas en cuenta.

d) Las consultas relacionadas con las presentes bases se podrán realizar a través del correo **circuito@redteatrosnavarra.com** o en el teléfono **692 601 377.** En este correo no se recepcionarán propuestas.

13. FIRMA DEL CONVENIO CON LA DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA DEL GOBIERNO DE NAVARRA

La ejecución del presente proyecto queda supeditada a la firma del convenio entre la Dirección General de Cultura – Institución Príncipe de Viana y la RTN-NAS, destinado a tal fin. Una vez firmado el texto del convenio, la RTN-NAS incorporará al proyecto las modificaciones que se consideren necesarias en caso de que el propio convenio así lo exija. En el supuesto de que el convenio no llegara a firmarse, la presente convocatoria quedaría suspendida. Las compañías participantes, así como los espacios escénicos contratantes, entienden y asumen esa circunstancia.

14. ACEPTACIÓN DE LAS BASES

El envío de propuestas a través de la presente convocatoria implica la aceptación de la totalidad de las presentes bases, entendiendo la especificidad del programa y respetando la autonomía de la RTN-NAS en todo lo relacionado con la elección de trabajos y coordinación y gestión del ciclo.

RED DE TEATROS DE NAVARRA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

En Burlada a 8 de abril de 2026
Red de Teatros de Navarra – Nafarroako Antzoki Sarea.

La Red de Teatros de Navarra - Nafarroako Antzoki Sarea es una asociación sin ánimo de lucro integrada, en la actualidad, por 35 ayuntamientos.

Sendaberri

Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

Organiza/ Antolatzailea:

RED DE TEATROS DE NAVARRA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

Subvenciona/ Diruz laguntzen du:

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Fotografía/Argazkia: Lorenzo Scutti
Espectáculo/Ikuskizuna: El Porqué De Los Perdidos / Galduen Zergatia. (Sendaberri 2026)

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

Red de Teatros de Navarra – Nafarroako Antzoki Sarearen (aurrerantzean RTN-NAS) berezko programa da, eta Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuarekin lankidetzan garatzen da.

SENDABERRI FILOSOFIA

SENDABERRI hitz-jokoa gaztelaniak eta euskarak osatzen dute, eta bidezidor berriak, bide berriak esan nahi du.

Horixe da, hain zuzen ere, zikloaren helburu nagusia: gure sarearen bazkide diren gune eszenikoen **ohiko programazioa aberastea eta osatzea**, kalitatezko ikuskizunen bidez. Ikuskizun hauen programazioa zailagoa izaten ohi da, ez bait daude ikusleak modu erraz batean erakartzeko sortuak.

Antzerki-, dantza- eta zirku-proposamen eszenikoak, ezaugarri hauetako batzuekin:

Hizkuntza berritzaileak erabiliko dituzten gaiak, hainbat diziplina integratuko dituztenak, komertzialetik aldenduko direnak, bere taldean edo mezuan inklusiboak izango direnak, haien gaietan kontzientzia kritikoa sortuko dutenak eta gizartearen errealitatearekin bat eginen dutenak, gizarte-gaien, genero-ikuspegiaren edo egoera ahulean dauden kolektiboei laguntzearen aldeko apustua eginez; azken batean, hunkituko gaituzten proposamenak.

Hortaz, gure audientziei, gune eszenikoei eta konpainiei lagun egin nahi diegu bide eszeniko berriak zabaltzen; kontatzeko modu berriak, sentitzeko modu berriak.

LABURREAN

Azken programazioa diseinatzeko, kontuan hartuko dira deialdi honen bidez aurkeztutako ikuskizunak. Ikuskizun horiek RTN-NASek berak proposatzen dituen ikuskizunekin osatuko dira, horretarako sarearen barnean diseinatutako batzordeen eta mekanismoen bidez.

Programazioa bi bloketan banatuko da: urtarrilaren 15etik aurrera eta maiatza bitartean, eta irailaren hasieratik azaroaren erdialdera. RTN-NASera elkartutako espazioen ezaugarrietara egokituko diren formatu ertaineko eta txikiko ikuskizunen bila gabiltza, bai gune eszenikora, bai erabilgarri dagoen aurrekontura egokituko direnak.

Gune eszenikoek jarduera paraleloren bat edo bitartekotza-jardueraren bat programatzen dute, emanaldiarekin berarekin batera, bai aurreko egunetan (lantegiak, ekintzak inguruko kolektiboekin...), bai emanaldiaren egunean bertan (publikoarekin elkartzea emanaldiaren aurretik edo ondoren). Horregatik bilatzen dugu, hain zuzen ere, halako jardueretan interesa duten konpainiekin lankidetzan jardutea.

Behin betiko programazioa barneko hainbat irizpide eta metodologia kontuan hartuta diseinatuko da; horiek, Nafarroako proposamenen presentzia nabarmena edo beren taldeetan Nafarroako parte-hartzaileen presentzia bermatuko dute, betiere horiek programa-helburuei erantzuten badiete. Halaber, Nafarroakoa ez den konpainiaren batentzako tokia mantenduko da beti. Hori guztia gune eszenikoen ikuskizun aukeraketen mende egonen da.

Beraz, RTN-NASek, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuarekin lankidetzan, epea zabaldu du SENDABERRI, Paisaia Eszeniko Berriak 2027 ziklora proposamenak aurkezteko. **Epe hori 2026ko apirilaren 23ra arte** (azken hori barne) **egonen da zabalik.**

01. XEDEA

Deialdi honen xedea proposamen eszenikoak jasotzea da, SENDABERRI, Paisaia Eszeniko Berriak 2026 zikloaren programazioa diseinatzean kontuan hartu ahal izateko.

02. 'SENDABERRI' FILOSOFIA

Zikloaren helburu programatikoak dokumentu honen sarreran zehaztuta daude, eta URL honetan ere kontsulta daitezke (https://sendaberri.com/eus/sendaberri/), nahiz zikloa definitzen duten bideoetan (**gaztelaniaz** nahiz **euskaraz**).

03. APLIKAZIO-ESPARRUA

Dokumentu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten arte eszenikoetako pertsona fisiko profesionalek eta enpresek aurkeztu ahal izanen dituzte proposamenak. Nork bere proposamena bidali aitzin, oinarri hauek arretaz irakurri behar dira. Jasotako proposamenek zehaztutako baldintzak betetzen ez badituzte, automatikoki ezabatuko dira.

04. PROPOSAMEN ESZENIKOEI BURUZ

a) Nafarroako konpainiak: 2024ko irailetik aurrera estreinatutako antzerki-, dantza- eta zirku-ikuskizunen inguruko proposamenak aurkeztu ahal izanen dira. Aurki estreinatuko diren ikuskizunak onartuko dira, betiere obraren bideo osoa aurkeztu badezakete (bideoa entsegu-prozesukoa bada ere).

b) Nafarroakoak ez diren konpainiak: 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera estreinatutako proposamenak, betiere antzeko batzorde artistikoen beste hautaketa-prozesuren bat gainditu badute, edo kalitate-bereizgarri edo -zigiluren batek bermatuta badatoz.

Bereziki hartuko dira kontuan:

⟶ Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorium, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sarearen gomendio-koadernoetako parte diren edo Sarearen zikloren bateko (Danza a Escena eta Circo a Escena) parte diren ikuskizunak.

⟶ Arte Eszenikoen Azoka nazional entzutetsuetako baten programazioan (orain arte egindako azken edizioan) parte izan diren ikuskizunak: Dferia, Fetén, Huescako Antzerki eta Dantzaren Nazioarteko Azoka, Madferia eta abar. Konpainiek egoki deritzoten moduan frogatu beharko dute hori (webguneetarako estekak, gutun ziurtatuak eta abar).

⟶ RTN-NASeko bazkideek edo laguntzaile adituek ikusi eta gomendatutako ikuskizunak.

c) Sendaberrik **erakusketaren osagarri izanen diren jardueren** programatzea sustatzen du; bitartekaritza- edo publikoa sentsibilizatzeko jarduerak. Hori dela eta, konpainiek, ildo horretan, jardueraren bat edo proposamenen bat aurkeztu beharko dute; besteak beste, emanaldiaren egunean bertan publikoarekin egiten den topaketa bat nahiz emanaldiaren aurreko egunetan dagokion herriko entzuleriarekin zuzenean konektatuko duten ekintza garatuagoak.

Proposamen bat programazioan parte hartzeko hautatzen denean, konpainiak eta gune eszenikoak aukeratutako jarduerak herri bakoitzeko errealitatera egokitzeko eta jarduerak horren arabera garatzeko lan eginen dute, konpainiaren hasierako proposamenetik abiatuta. Beraz, jasotako proposamenek 12. puntuan aipatutako proiektuan, puntu horren ildotik, jardueraren bat aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, jardueraren kostua zehaztu beharko dute. Baldin eta jarduera, emanaldiaren egunean, publikoarekin topaketa bat izango balitz, topaketa horren helburuak azaldu beharko lirateke, ikusleekin partekatu nahi diren gaiei, sorkuntza-prozesuei edo beste gai batzuei dagokienez. Jarduera bat baino gehiago eskainiz gero, gune eszenikoak erabakiko du zein den bere herriarentzat interesgarriena.

d) Aurkeztutako proposamenek **ikuskizunaren cache osoaren zenbateko gordina** zehaztu beharko dute **(BEZa BARNE)**, gastu guztiak sartuta (cachea, fitxa teknikoa, garraioa, dietak eta abar). **Kontratazio-kopuruaren araberako cache-proposamen aldakorrak** aurkeztu ahal izanen dira, eta hori oinarri hauetan parte hartzeari buruz 12. puntuan aipatutako eskabide-fitxan zehaztu beharko da. Halaber, proposatutako jarduera paraleloen kostua zehaztu beharko da izena emateko orrian: cachea (funtziorako bakarrik), eta jarduera paraleloen kostua, hala badagokio.

e) **Barnerako izanen diren** proposamenak soilik aurkeztu ahal izanen dira, eta horiek RTN-NASeko bazkide diren titulartasun publikoko guneren batean eginen dira. Emanaldiak oholtza gainean burutu daitezke edo gune eszenikoan bertan kokatuta dagoen ezohiko guneren batean, proposamenak helburu horrekin sortu badira.

f) Konpainia bakoitzak **proposamen bakarra** aurkeztu ahal izanen du.

g) RTN-NASek automatikoki ezabatuko ditu eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten edo zehaztutako epeetara egokitzeko aldatu den informazioa duten proposamenak.

h) Antzerki-, dantza- edo zirku-ikuskizunak programatu nahi ditugu, baita hainbat genero bilduko dituzten diziplina anitzeko proposamenak ere. **Ez dugu nahi proposamen musikal edo kontzertu hutsak.** Zalantzak sortzen dituzten proposamenak zikloaren talde kudeatzaileak aztertuko ditu Batzorde Artistikoarekin lankidetzan, eta horiek erabakiko dute hautaketa-prozesuan sartzea ala ez.

i) RTN-NASek, bere barne metodologien eta lantaldeen bidez, filosofia horri erantzungo dioten ikuskizunak proposatzeko ahalmena izanen du, **estreinaldiaren data edozein dela ere**. Proposamen horiek jasotako proposamenei gehituko zaizkie, zikloaren irizpide programatikoei hobekien erantzunen dien programazioa diseinatzeko, eta arreta konpainietan, gune eszenikoetan eta audientzietan jarriz.

05. KONPAINIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Karga burokratikoa murrizteko eta izen-ematea errazteko, puntu honetan aipatutako dokumentazioa soilik programatutako konpainiei eskatuko zaie.

Deialdi honetara arte eszenikoetako konpainien, ekoizleen eta banatzaile profesionalen antzerki-, dantza- eta zirku-ikuskizunak aurkeztu ahal izanen dira. Programazioan parte hartzeko hautatuak izanez gero, profesional-izaera honela justifikatu beharko da:

a) Titularra pertsona fisikoa edo sozietatea den kontuan hartuta, dokumentu hauetako bat aurkeztu beharko du:

a.1. Pertsona fisikoa bada: jarduera profesionala gauzatzen duela egiaztatzen duen agiria (EJZn erregistratuta).

a.2. Izaera juridikoa duten sozietate zibilen kasuan, baina merkataritza-sozietateen forma juridikoak ez dituztenean: sozietatearen kontratuaren eta identifikazio fiskaleko kodearen (IFK) kopia.

a.3. Merkataritza-sozietateen kasuan: Merkataritza Erregistroan dagoen Estatutuen inskripzio-eskrituraren kopia (edo, hala badagokio, egindako aldaketari dagokiona) eta identifikazio fiskaleko kodearen kopia.

b) Zerga-betebeharrak (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

c) Ezinbesteko baldintza izanen da programatutako ikuskizun batean parte hartuko duten pertsona guztiak kontratatutako profesionalak izatea, besteren kontura nahiz autonomoen araubidean (pertsona horiek beren borondatez aukera hori eskaintzen edo eskatzen duten kasuetan soilik). **Hortaz, ezin izanen dira programatu amateur gisa artistak biltzen dituzten ikuskizunak**, nahiz eta talde osoaren zati bat baino ez izan (salbu eta pertsona horien parte-hartzea bitartekaritza-jarduera baten emaitza bada eta ondo justifikatuta badago). Talde kudeatzaileak profesionalak benetan kontratatu izana bermatuko duten dokumentuak eskatu ahal izanen ditu.

06. PROGRAMAZIORA PROPOSATUTAKO IKUSKIZUNAK HAUTATZEA

RTN-NASek, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuarekin lankidetzan, programatu daitezkeen ikuskizunen hautaketa oso murritzarekin katalogo bat eginen du, Sendaberri zikloaren eta filosofiaren programazio-helburuak kontuan hartuta. Horretarako, gaian adituak diren pertsonek osatutako Batzorde Artistiko baten laguntza izanen du. Batzordekideek kontuan hartuko dituzte deialdi honen bidez jasotako proposamenak, baita ezagutzen dituzten eta Sendaberriren helburuei dagokienez egokitzat jotzen dituzten beste proposamen batzuk ere.

Ez da egongo matematikoki objektibatu daitekeen baremorik, RTN-NAS bere buruaren jabe izanik aukeratzeko. Elkarteak programaren helburuak hartuko ditu kontuan, baita erakundearen beraren gune eszeniko bazkide direnen errealitatea ere. Horretarako, honako alderdi hauek hartu ahal izanen dituzte kontuan: proposamenak duen arriskua sormenaren ikuspegitik, gaia, ideiaren tratamendua, proposamenen hunkiberatasun-maila eta horien erakargarritasun-ahalmena, alderdi berritzaileak (prozesuetan, lengoaietan edo teknikan), kalitate artistikoa, konpainiaren ibilbidea eta abar.

Hautaketa-prozesuan kontuan hartuko diren beste alderdi batzuk:

⟶ Aurkeztutako proiektu laburraren kalitatea eta argitasuna (ikusi 12. puntua) eta proiektu hori zehaztutako programa-ildoetara zenbateraino hurbiltzen den.

⟶ Aurkeztutako jendaurreko jarduera paraleloen edo ikusleak sentsibilizatzeko jardueren planteamendu eta koherentzia eta horiek zikloaren helburuetara zein neurritan hurbiltzen diren; batez ere, herriarekin zuzeneko harremana eskaintzen dutenak.

⟶ Bideragarritasun teknikoa: Positiboki baloratuko da ikuskizunak RTN-NASeko espazioetan antzeztu ahal izatea. Ildo horretan, erakundearen webguneko "Nortzuk Gara – Udal bazkideak" atalean, sarea osatzen duten gune eszenikoen kopurua eta horietako bakoitzaren edukierak kontsulta daitezke. Horrek, RTN-NAS osatzen duten espazio-moten berri eman dezake. "Antzeztokiak" izeneko atalean ere, 'rider' teknikoari eta espazio bakoitzaren ezaugarriei buruzko informazio publikoa dago.

⟶ Euskarazko ikuskizunak: Sarea, proposatutako izenburuen artean, Sendaberri filosofiarekin bat egiten duten euskarazko ikuskizunen zerrenda bat sartzen saiatuko da.

Aukeratutako ikuskizunak RTN-NASen webgune ofizialeko "Berriak" atalean argitaratuko da. Katalogo horretan egoteak ez du kontrataziorik bermatuko, proposamena hautatzeko azken erabakia gune eszenikoaren esku egonen baita (ikus 7. puntua).

07. SENDABERRI PROGRAMAZIOAREN DISEINUA

RTN-NAS arduratuko da programaren helburuei erantzungo dien formatu txikiko eta ertaineko proposamenen programazio ekitatiboa sustatzeaz. Horretarako, erakundeak behar diren mekanismoak diseinatuko ditu, azken programazioak premia horiei erantzun diezaien; afera hori sarearen barnean kudeatuko da. Ildo horretan, erakundeak autonomia du beharrezkotzat jotzen dituen erabakiak hartzeko; besteak beste, ikuskizun bera programatu daitekeen aldi-kopurua mugatzeko aukera, eta Nafarroako konpainien programazioa lehenetsiko duten mekanismoak erabiltzeko aukera.

Horrenbestez, azken programazioa osatuko dute aurretiko hautaketan sartu ondoren gune eszenikoek azken buruan hautatu dituzten tituluek, barne-metodologia eta -irizpide batzuei jarraikiz. Hauek dira metodologia eta irizpide horien helburuak:

» Lurraldean ziklo eta sare gisa programazio koherentea diseinatzea.

» Diziplinen arteko oreka bilatzea.

» Eskaintza dibertsifikatzea eta deszentralizatzea sustatzea.

» Sareko lana sustatzea.

» Nafarroako konpainien presentzia bermatzea.

» Jarduera paraleloak edo publikoak sentsibilizatzekoak bultzatzea.

RTN-NASek, zikloaren talde kudeatzailearen bitartez eta gune eszenikoen aukeraketak aztertu ondoren, programatu daitezkeen konpainiekin soilik jarriko da harremanetan, eta zikloaren kudeaketarekin zerikusia duten gai guztien berri emango die (proposatutako plazak, datak bilatu, kontratuak eta abar).

Gogoratu behar da ziklo honetatik kanpo sareko gune eszenikoek autonomia osoa dutela nahi dutena programatzeko, eta, beraz, edozein konpainia (nongoa den kontuan hartu gabe) kontratatua izan daiteke sareko gune eszenikoetan ohiko bideetatik.

08. ZABALKUNDEA

Zabalkundearekin zerikusia duten gai guztiak RTN-NASek Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuarekin sinatuko duen hitzarmenaren eskaerekin bat etorriko dira, baita balizko finantziazio-bide berrien bidez egon daitezkeen eskakizunekin ere. Nolanahi ere, horiek konpainien, gune eszenikoen eta RTN-NASren artean formalizatuko diren kontratuetan zehaztuko dira.

09. FINANTZAKETA

Programa **Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundearen**, programan parte hartzen duten RTN-NASeko udal-gune eszenikoen eta, beharrezkotzat hartuz gero, RTN-NASek berak bere baliabideen bidez, lortutako beste akordio batzuen bidez edo beste laguntza-deialdi batzuetan parte hartuz egin ditzakeen beste ekarpen batzuen bidez finantzatuko da.

9.1- Gune eszenikoetarako finantzaketa-ehunekoei dagokienez:

RTN-NASek ikuskizunaren cachearen portzentaje bat finantzatuko du, eta hori aldakorra izan daiteke proposamenek Sendaberri filosofiarekiko duten hurbilketa-mailaren arabera. Batzorde Artistikoa arduratuko da ikuskizun bakoitzari esleituko zaion finantzaketaren ehunekoa zehazteaz.

Programatutako ikuskizun bakoitzarentzat proposatutako azken finantzaketa-ehunekoa edozein dela ere, RTN-NASek ikuskizun bakoitzeko finantzatuko duen gehieneko zenbatekoa honela kalkulatuko da: Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmenean programaziora bideratutako aurrekontua (105.000 euro inguru, BEZa barne) zati parte hartuko duten gune eszenikoen kopurua. Kalkuluen arabera, kopuru hori 3.000 euro ingurukoa izanen da, BEZa barne (datu horiek jakiteko zain).

Aplikatutako ehunekoek zenbateko hori gainditzen badute, gune eszenikoak hartuko du bere gain konpainiaren cache osoaren zenbatekora arteko aldea. Halaber, ehuneko hori txikiagoa izan daiteke esleitutako azken emanaldirako erabilgarri dagoen soberakina nahikoa ez denean, eta, betiere, gune eszenikoa diferentzia bere gain hartzeko prest badago.

9.2- Zikloan parte hartuko duten udal gune eszenikoek ondoren aipatzen diren gastu horiek hartuko dituzte beren gain:

a) Kontratatutako konpainien cacheari dagokion ehunekoa, BEZa barne.

b) Ikuskizunen behar teknikoak: langile teknikariak (pertsona bat), argiztapen- eta soinu-ekipoak eta abar. Ildo horretan, gune eszeniko bakoitzak RTN-NASeko kide izateko eskatzen zaizkion gutxieneko baldintza teknikoak soilik jarri beharko ditu; baldintza horiek erakundearen estatutuen I. ERANSKINEAN daude eskuragarri. Gutxieneko fitxatik gorako beharrak konpainiaren kontura izanen dira, gune eszenikoak bere borondatez jartzen duenean izan ezik. Dantza emanaldietan gune eszenikoek linoleoa jarri beharko dute beharrezkoa bada, konpainiek eramaten ez badute.

c) Jardueren berri emanen da ohiko bideetatik (kartelak, sare sozialak...), programak ezarritako eta sinatuko den kontratuan zehaztutako ildoen arabera.

d) Gune eszenikoa eta espazio osagarriak erabiltzearen ondoriozko gastuak; besteak beste, agertokia, aldagelak, aretoa, atondoa eta sarbideak, baita gune eszenikoan eta espazio osagarrietan publikoaren eta konpainiaren segurtasuna bermatzeko beharrezkoak direnak ere.

e) Sarrera-salmenta eta egile-eskubideak ordaintzea horiek kudeatzen dituzten erakundeei.

f) Ikuskizunerako beharrezkoak diren beste edozein gastu, horiek konpainien eta RTN-NASen kontura ez badira.

g) Paraleloki hautaz egin daitezkeen jarduketen kostua, baldin eta jarduketa horiek egitate eszeniko globaletik bereiz badaitezke. RTN-NASek jarduketa horien kostuaren ehuneko bat bere gain hartzeko aukera gordetzen du berarentzat, inplikatutako alderdi guztiek egokitzat jotzen badute.

10. KONTRATU-EREDUA ETA FAKTURAZIOA

RTN-NAS arduratuko da kontratu bakarra idazteaz; berau hiru aldeek sinatu beharko dute (RTN-NAS, tokiko erakunde parte-hartzailea eta konpainia artistikoa).

Kontratu horretan alde bakoitzaren kontratazio-baldintzak, betebeharrak eta eskubideak zehaztuko dira. Kontratatutako konpainiek programatutako emanaldi bakoitzeko bi faktura jaulki beharko dituzte (bat RTN-NASi eta bestea dagokion toki-erakundeari), kontratuetan definituko den zenbatekoarekin.

11. DOKUMENTUAK AURKEZTEKO EPEAK

Konpainiek **2026ko apirilaren 23ra** arte izanen dute zabalik (egun hori barne) proposamenak aurkezteko epea.

Jasotako proposamen kopuru altua dea eta ezinezkoa zaigu konpainiekin banan banan harremanetan jartzea. Dena den, mezu elektroniko bat jasoko dute mezua jaso dela konfirmatzeko.

12. ESKAERA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

a) Proposamenak jasotzeko epean zehar **sendaberri@gmail.com** helbide elektronikoa martxan jartzen da. Eskaera eginen duten konpainiek honako dokumentu hauek bidali beharko dituzte bertara:

⟶ **“Parte hartzeko eskaera-fitxa”;** berau RTN-NASen webgunean egonen da eskuragarri oinarriak argitaratzeko jakinarazpen ofizialaren amaieran Ezinbestekoa izango da **proposamenaren bideoa** bidaltzea eta **URL-esteka bidez sartu beharko da** parte hartzeko **eskabide-fitxan bertan.** Ez da ezein kasutan onartuko materiala deskargatzeko wetransfer edo antzeko estekarik.

⟶ Proiektua: **proiektu labur bat** aurkeztu behar da, proposamen eszenikoak Sendaberri, Nuevos Paisajes Escénicos - Paisaia Eszeniko Berriak 2027 programaren parte izatea zergatik merezi duen argudiatuz. Egoki iritziz gero, proiektuak sustapenerako beste material-mota bat jaso dezake, baina betiere dokumentuan bertan txertatuta, eta kontuan hartuta proiektuaren pisua ezin izanen dela 10 MB baino handiagoa izan. Idazketa-eredua librea da, eta gehienez 5 orri izanen ditu (10 orri, proiektua gaztelaniaz eta euskaraz bidaliz gero).

⟶ Nafarroatik kanpoko konpainiek oinarri hauetako 4. b) puntua betetzen dutela justifikatu beharko dute (hori frogatzen duten dokumentu ofizialak, edo egiaztapena egitea ahalbidetuko duten orri ofizialetarako web-estekak).

b) Konpainiek, nahi izanez gero, ikuskizunaren dosier generikoa PDF dokumentu bakarrean bidal dezakete, dokumentazio gehigarri gisa, baina dokumentu horrek ez du inolaz ere eskatutako proiektu laburra ordezkatuko.

c) Deialdian eskatutako agiri guztiak bidaltzen ez dituzten eskabideak ez dira aintzat hartuko.

d) Oinarri hauekin lotura duten kontsultak **circuito@redteatrosnavarra.com** helbidera idatzita edo **692 601 377** telefono-zenbakira deituta egin ahal izanen dira. Gogoratu helbide honetan ez dela proposamenik jasoko.

13. HITZARMENA SINATZEA NAFARROAKO GOBERNUKO KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREKIN

Proiektu hau gauzatzeko, nahitaezkoa izanen da Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundea eta RTN-NASek horretarako hitzarmena sinatzea. Hitzarmenaren testua sinatuta, RTN-NASek beharrezkotzat jotzen diren aldaketak sartuko ditu proiektuan hitzarmenak berak hala eskatzen badu. Hitzarmena sinatzen ez bada, deialdi hau bertan behera geratuko da. Parte hartzen duten konpainiek eta gune eszeniko kontratatzaileek egoera hori ulertzen eta onartzen dute.

14. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honen bidez proposamenak bidaltzeak esan nahi du oinarri hauek guztiak onartzen direla, programaren berariazkotasuna ulertuta eta lanak aukeratzearekin eta zikloa koordinatu eta kudeatzearekin lotura duen guztian RTN-NASen autonomia errespetatuta.

Burlatan, 2026ko apirilaren 8an
Red de Teatros de Navarra – Nafarroako Antzoki Sarea.

RED DE TEATROS DE NAVARRA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

Red de Teatros de Navarra - Nafarroako Antzoki Sarea irabazi-asmorik gabeko elkartea da. Gaur egun, 35 udalek osatzen dute.